


Alsina

Euskal exodoaren ezina

1940ko abenduan *Alsina* baporea Frantziako Marseilla hiritik abiatu zen ehunka errefuxiatu zeramatzala, tartean zen 16 urteko Nestor Basterretxea mutikoa. Ia bostehun egun geroago iritsi ziren Argentinara, itsaso zabaletan eta basamortuetan oinazea jasan ondoren. Hauxe da artista ezagunaren testigantza.

JOSU CHUECA



NESTOR BASTERRETXEAK

OZEANO ATLANTIKOA ZEHARKATZEKO aste pare bat aski zuten itsasontziek 1930-1950 hamarkadetan. Europatik edo Afrikako itsas portuetatik abiatuz, ur handietan barrena Amerikaratzen ziren barkuak, jende andana eta ohiko zamak garraiatuz. Baina II. Mundu Gerrak itsasoa ere sutu zuen 1939. urteaz geroztik. Bai alemaniarrek eta baita britainiarrek ere, itsaso guztiak kontrolpean nahi zituzten, urpekoak eta gerla-ontziak erabiliz.

Nestor Basterretxeak marrazki mordoak egin zuen *Alsina* barkuan zela. Honakoa itsasontziaren bizkarreko irudia da.

Borroka horretan harrapaturik geratu ziren, gerraren arragotik, Europatik, alde egiten saiatu ziren asko. Horixe gertatu zitzairen 1940ko abenduan Marseillan itsasoratu ziren ehundik gora euskalduni, *Alsina* barkuan askatasuna dastatzera Ameriketara abiatu zirenean. Ez zekiten, orduan, ustezko hamabost eguneko zeharkaldia, ia hamabost hila-betekoa izango zenik. Ezta beren patua, nazien eta frankisten eskuetan ez ezik, Britai-



NESTOR BASTERRETXEA



BIBLIOTHEQUE NATIONALE DE FRANCE

Marseillako portutik abiatu zen *Alsina* 700 bidaiarirekin, tartean ehun euskaldun inguru. Ezkerrean, Basterretxeak egindako marrazkia; eskuinean, portuaren orduko argazki bat. Bietan ageri da hiriaren soslaia.

nia Handiaren mugimendu estrategikoetan egongo zenik ere.

Marseillako gorabeherak

Frantzia osoan barreiatutik zeuden erbestertuek jakin zuten, Mexikoko diplomatikoez egindako ahaleginei esker hainbat itsasontzi Amerikarako bidaia egiten ari zirela, tantaka bazen ere, “eskualde libreko” Marseillatik abiatuta. Eta 1940ko abenduaren amaieran, Compagnie Trasatlantique Française-ko *Alsina* portutik ateratzear zegoen. Ondorioz, Pabetik, Montaubanetik, baita Bodeletik eta Parisetik ere, “mugatze lerro” ospetsua gaindituz, ehundik gora euskal errefuxiatu Marseillara iritsi ziren, barkuan ospa egiteko asmoz. JAREK (Errepublikar Espainiarrak Laguntzeko Batzordea) emandako diru-laguntzarekin, 3.500 libera inguru balio zuen txartela eskuratu ostean, urtariraren 14an hasi ziren ontziratzen. Baina ez zen batere erraza izan, Espainiako enbaxadak eta poliziak gertutik jarraitu baitzituzten mugimendu horiek. Are okerrago: Frantziako agintariei zein Gestapori izen zerrendak luzatu zizkieten, bidaiari izan zitezkeen hainbat politikaririk ihes egitea eragozteko. Errolda horietan, Federica Montseny, Paulino Gomez Saiz, Antonio Sbert, Juan Peiro eta beste zenbait azaltzen ziren. Ez zen txantxetako gauza. Euskaldunei zegokienez, Rafael Picabea diputatu ohia eta *El Pueblo Vasco*-ren sortzailea, barkura igo ostean, indarrez jaitsi arazi zuten agintari frankistek eta Vichyren Gobernuaren aldekoek. Ederki oroitzen da Nestor Basterretxea afera horretaz: “Picabeak polizien kontrola gainditu zuen, bere semearen pasaporte baliatuz, izen berdina zutelako. Baina goian zegoela, deika hasi zitzaion eta poliziek orduan zerbait susmatu zuten eta

**“Basamortuan geundela,
kongresuko takigrafo ohi batek
gaua iritsita biolina jo zuenean
–bai gaizki jo ere!– jendea
nagarrez hasi zen”**

NESTOR BASTERRETXEA

bere bila joan ziren. Berriz ere kaira jaitsi zuten eta hainbat egun atxilo izan zuten, nahikoa barkua galtzeko eta estradizioaren mehatxupean gelditzeko. Biek, semeak zein aitak, azkenean, Frantzian gelditu behar izan zuten”.

Hala ere, zori hobea izan zuenik bazegoen: *Alsina*k, azkenean Marseillatik urrundu zenean, 700 bidaiari inguru zeramatzan, eskifaia kontuan hartuta. Horietatik erdia baino gehiago Belgikako, Austriako eta Frantziako herritarrak ziren. Gutxiengo ziren Espainiako gerra zibila amaitu zenetik ihesean zebiltzan errefuxiatuak. Horien artean, Niceto Alcaza Zamora, Espainiako II. Errepublikak izandako lehen presidentea eta bere lau seme-alabak; Constantino Salinas Nafarroako diputatu ohia eta bere bi alabak; Telesforo Monzon Eusko Jaurlaritzako kontseilaria; Jose Olivares *Tellagorri* ANVko kazetari ezaguna; Vicente Amezaga eta Mercedes Iribarren; Francisco Basterretxea diputatu ohia eta bere familia osoa...

Espainiako poliziak Frantzian egindakoa ikusita, bidaiariak ez ziren batere fio, Mediterraneoan igarotzean Espainiako armadak barkua abordatu eta indarrez lehorreratuak izateko beldur ziren denak. Zorionez ez zen horrelakorik gertatu eta Oran eta Gibraltargo itsasarte gibelean utzita, Atlantiko zabala aurrez aurre ikusi ahal izan zuten. Europatik urrutiratzen ziren neurrian, askatasunak gero eta eskuragarriago zirudien.

Dakarrak zekarrena

Afrikako itsasertza bidaide, Dakarrera iritsi ziren hamabi egun geroago. Afrikako hiri hartan, ohikoa zen legea, egun pare bat beharko zituzten barkua janariz eta erregeiz hornitzeko, Atlantikoaz beste aldera jo baino

lehen. Baina hortxe hasi zen ustekabea, behin-behineko geldialdia betikotu baitzen. Armada britainiarrak ez zuen baimendu *Alsina* Atlantikokoan murgiltzea, “Navy Act”, hau da, nazioarteko uretan ibiltzeko beharrezkoa zuten nabigazio baimenik ez zuelako.

Frantziatik eta bandera frantsesarekin zihoan barkua zen, beraz Vichyko Gobernuaren oniritzia zuen –Alemaniarren kolaboratzaile izanik–, eta hori susmagarria zen britainiarrentzat. Itsasoetan jokatzeko ari zen gatazkan, barku komertzialek ere xake partida baten peoiak ziruditen. Izan ere, Alemaniako urpekoek ez zuten zalantzarik izaten horrelakoak hondoratzeko, eta britainiarrak, Hitlerren alde ezarri zitekeen edozein ontzi –izan armadarena nola konpainia pribatuena– indargabetzeko prest zeuden. Hilabete batzuk lehenago, 1940ko uztailaren 3an, *Royal Navy* Frantziako armadari Argeliako Mers el Kébirren egindako txikizioak, argi bezain gordin erakutsi zuen Britainiako ontzidialdi prest zegoela muturreraino jotzeko eta lagun ez zen oro suntsitzeko.

Basterretxeak garbi du mataza horren haria zein zen: “Dakarrera iritsi ginenean, egundoko triskantza zegoen. Isiltasun latza ere bai. Marinelak, britainiarrek egindako azken bonbardaketan kaltetutako gauzak ateratzen ari ziren oraindik. Britainiarrek pentsatzen zuten, eta zuzen ziren, Frantziako armada distiratsua germaniarren eskutara igaroko zela azkenean, zeren eta Pétain [Philippe Pétain, Frantziako mariskala eta Vichyko gobernuburua] gero eta txikiagoa zen”. Hitlerrek, aldiz, Finlandia iparretik Hendaia-raino kontrolatzen zuen Europa eta Atlantikoko eskualde zabala bere menpe zuen.

Dakarreko portuan, beraz, *Alsina* ateratu




ezinik gelditu zen. Bere ondoan garai batean Frantziako armadak izandako itsasontzi indartsuenetako bat zegoen: *Richelieu* suntsitzailea. Frantzia Vichyzalearen ikur paregabea zen, *grandeur* edo handinahi antzueren seinalea. Baina gerraontzia erabat geldirik zegoen, kanoiak eta motorrak deseginda baitzituen. Itsasoan, lurrean lez, britainiarrak eta germaniarrak ziren nagusi. Hala, *Alsina* egin behar zuen geldialdixoa luzatzen hasi zen, eta kablegramen bitartez, Dakarren indarrez blokatu zituztela zabaltzen hasi ziren AEBetara, Londresera, Mexikora eta Buenos Airesera. Ezinezkoa zen “Navy Act” ditzosozkoa lortzea eta hor gelditu ziren aingurak botata.

Noizean behin Dakar hirira jaisten baziren ere, bizitza barkuan egiten zuten bidaiariek. Errusiarrez osatutako ballet konpainia baten

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



Basterretxea 16 urterekin ontziratu zen erbestera joateko. Hamabost hilabeteko bidaia agonikoaren lekuko dira ontzian egindako irudiak.

ondoan, euskaldunek, Jesus Luisa Esnaolaren gidaritzapean, beren dantza taldea osatu zuten berehala. Ongi gogoratzen da Basterretxea: “Egun batean, *Alsina*ko bizkarrean marrazki bat burutzen ari nintzela, hurbildu zen niregana Jesus Luisa eta esan zidan ea marrazki batzuk egingo nizkion Xuberoako dantzez. Eszenografia edo kartel moduan nahi zituen. Nik baietz esan nion eta orduan hasi nintzen beste gazteekin dantza horiek ikasten. Nik zamaltzainarena egiten nuen, eta bide batez, horien inguruko marrazkiak. Surrealista samarra zen dena. Gurekin zeto-rron ballet errusiar konpainia bat. Ikaragarriko dantzari onak ziren eta saioak barkuan bertan egiten zituzten, guztien aurrean. Neska eta mutikoen artean ere ohiko harremanak sortu ziren. Hainbat bikote egin eta desegin ziren hor, baita ezkontzaren bat ere. Txortan egiteko oztopoak gainditurik —emakumeak atzeko aldean zihoazen eta gizonezkoak brankako sotoetan—, umeren bat munduratze bidean ere jarri zuten...”.

Casablancatik Buenos Airesera basamortuan barrena

Horrela, bost hilabete luze eman zituzten Dakarreko kaietan, barkuaren jabeek eskatuta,

*Alsina*k atzera, hots, berriz ere Marseillara jo behar izan zuen arte. Bidaiaiek ez zuten inongo asmorik Frantziako anabasara itzultzeko eta ekainaren 3an barkuak Casablancan geldialdia egin zuenean, gehienek nahiago izan zuten han bertan lehorreratu. Balantzea ez zen batere ona: denboran zehar eta itsasoan barrena atzera egin zuten, berriro Vichyren menpe zeuden, eta Espainiaratzeko mehatxua Marseillatik atera zirenean baino askoz handiagoa zen.

Baina ez zen horrelakorik gertatu, Afrika frantziarreko agintariak Kashba Tadjara eta Sidi el Ayachira bidali baitzituzten errefuxiatuak. Lehenbizikoan, garai batean soldadu frantziarrek erabilitako barrakoi multzoak zeuden, basamortuaren erdian, *Alsina*koentzat “aterpe zelai” bihurtuta. Sidi el Ayachin, antzeko zer bait. Hona Basterretxearen hitzekin kontatuta: “Herritik lau kilometrora jarri gintuzten, alemaniarren menpe zegoen kaserna zahar batean. Hori kuxidadea! Gameluen kakaz gainezka zegoen. Dena garbitu beharra zegoen, lurrean egin behar baikenuen lo. Eta oroitzen naiz kongresuko takigrafo ohi batek, gaua iritsita biolina jo zuenean —bai gaizki jo ere!—, jendea negarrez hasi zela”. Errefuxiatu gehienek barrakoi ziztrin horietan laketu behar izan zuten lau hilabetez; baina Dakarren jasandako



1942ko apirilean iritsi ziren Nestor Basterretxea eta bere familia Buenos Airesera; argazkia *Euzko Deya* egunkarian argitaratu zen. Eskuinean, Basterretxea Hondarribiko bere etxean, elkarriketa egunean.

berotzarrak eta gaixotasunek onduta, leunago egin zitzaizen basamortuko egonaldi hura.

Irtenbidea, kostata bazen ere, Mexikotik etorri zen. Erbesteko diruaz baliatuz eta Indalecio Prietoren bitartez, JAREk beste barku bat bidali zuen, *Quanza*, errefuxiatu haiek erreskatatzeko asmoz. Portugalgo bandera zuen barkuak —herrialde neutrala— eta bidaia txartelak New Yorken, Mexikon eta Lisboan lortu zituzten gogor negoziatu ostean. Casablancara bidali zuten 400 inguru errefuxiatu hartzeko. Helmuga Mexikoko Veracruz zuen, baina Habanan ere geldialdia egiteko asmoa zuen *Quanza*k. Itsas portu horietatik aurrera, beste barkuekin egin beharko zuten aurrera bidaiariak. Beraz, 1941eko urriaren hondarrean, Amerikara jo zuen barku portugaldarrak aipaturiko lagunekin. Veracruz, mexikarrek harrera abegikorra egin zieten etorri berriei. Bi egun igaro zituzten han eta aukera izan zuten Mexiko D.F.-tik itzuli bat egiteko. Habanan, aldiz, berriro barneratze neurriak jasan zituzten Batistaren gobernuaren aldetik. Ez zeuden atxilo, baina badaezpada bakarturik eduki zituzten hainbat egunez. Koarentena horretaz mintzo da artista: “Habana joango ginela, berriro zapuzte ederra. Atzeritarrek Tiscornia deitzen zen sarrera lekutik igaro behar zuten. Hor egon ginen, desinfekzio aitzakiarekin, ez dakit, 20, 40 egun... Hara eramaten zituzten gu bezalako ‘atzeritar zorridunak’ eta susmagarri zen oro. Egun batean, esate baterako, Guayana Frantziarreko kartzeletatik ihes egindako hamabi gizon azaldu ziren. Zer piura eta buru ederrak marrazkitan hartzeko. Hasi nintzen... baina baten batek luzaturiko begiradarekin jabetu nintzen hobe zela ez jarraitzea”.

Bitartean, Habanako saihestu eta bidaia-ekin jarraitzea lortu zutenak ari ziren pixkanaka hurbiltzen behin betiko helmugetara:



Montevideora eta Buenos Airesera. Alcalá Zamora, esate baterako, *Herma Gorthon* zamaontzi suediarrean iritsi zen Argentinara 1942ko urtarrilaren 28an. Beranduago iritsi ziren Basterretxeatarak, Jose Luis Ituarte *Etxekalte*, Patxo Agirre, *Tellagorri* eta abar. Horiek, Kubako berrogeialdia jasan eta gero, *Rio de la Plata* barkuan Buenos Airesera egin zuten eta Hegoamerikako uretan egon arren, oraindik izualdiren bat edo beste sufritu zuten. Nestor Basterretxea akordatzan da urpeko alemaniar batekin izandako azken enkontruaz: “Motorren zarata bat-batean gelditu zen. Mutu geratu zen gure barkua, eta isiltasun bitxi horretan, gu, sototik igo berriak. Ilargi ikaragarri polita zegoen, eta itzal handi baten antzera, meta luze beltz bat agertu zen itsasotik. Urpeko alemaniarra zen. Guri mehatxuka hasi ziren eta galdera gogorak egiten: ea zer jende zihoan, nora gindoa zen... Gure kapitaina bizkor ibili zen eta esan zien galdetzeko Berlinen, gu amerikarrak ginela, argentinarrak, pasaiariak... denetatik, baina ez genuela zer ikusirik gerrarekin. Azkenean, urpekoa berriro sartu zen itsasora eta urruntzen hasi zen. Denboratxo bat igarota, kirioak dantzan genituen oraindik, torpedoen tiro ahalmena izugarria zen-eta. Baina zortea izan genuen, eutsi eta... Buenos Aireseraino!”.

Hori gertatu zenerako, 500 egun luzeemanak zituzten Amerikara iristeko ametsarekin. Atlantikoko zorigaiztoko zeharkaldia amaiturik, eta Argentinako euskal komunitatearen harrera beroak hunkituta, ez zuten sumatu ere egin beste zeharkaldi luzeagoa hasi berri zutela: erbestearena. ■

